

1.- Word-en, zein aukera hautatu behar dugu dokumentuan indize bat txertatzeko?

- a) Formatua/Indizea
- b) Erreferentziak /Edukien aurkibidea
- c) Txertatu /Indize taula

2.- Word-en, zein da besterik adierazi ezean erabiltzen den estiloaren izena?

- a) Default
- b) Normala
- c) Testuak

3.- Word-en, zein tekla konbinazio erabili behar da orrialde jauzi bat sartzeko?

- a) Win + Tab
- b) Ctrl + N
- c) Ctrl + Intro

4.- Word 2007tik aurrera, Word txantiloientzat formatu berri bat sartu zen. Zein da hedapena?

- a) dat
- b) ndot
- c) dotx

5.- Excel-en, zein da A1:A9 gelaxken barrutiaren batez bestekoa kalkulatzeko formula?

- a) =PROMEDIO(A1:A9)
- b) =MEDIA(A1:A9)
- c) =MEDIA_EXACTA(A1:A9)

6.- Excel-en zer da inprimatze-area?

- a) Erabiltzaileak inprimatu nahi dituen gelaxken barrutia ezartzeko asmoz ezartzen duen area da.
- b) Dokumentuak A4 formatuan inprimatzen direnean ezartzen den gutxieneko marjina da.
- c) Orrialdea inprimatzean soilik azaltzen diren ezkutuko gelaxken barruti bat da.

7.- Office-n, zer dira makroak?

- a) Aplikazioaren aginte aurreratuak agerrarazi edo ezkututzen dituzten botoiak.
- b) Tamaina egokitzeko edo irudiak mozteko tresnak.
- c) Lanak automatizatzeko edo errazteko programatxoak.

8.- Orokorrean, zein fitxategi mota ezin dira atxiki mezu batean?

- a) Zuzeneko atzipenak
- b) Pasahitza duten zip fitxategiak
- c) Musika fitxategiak (mp3, m4a, etab.)

9.- Posta elektronikoa kudeatzeko aplikazio edo webgune batean, zer dira erregelak?

- a) Mezuen tamainari jartzen zaizkion mugak.
- b) Mezuren bat jasotzen denean egin beharreko zereginak.
- c) Atxikitako fitxategi mota jakin batzuk blokeatzea.

10.- Mezu batean, hartzaile zerrenda bat soilik CCO edo BCCn jartzen dugunean eta bidaltzen dugunean, zer gertatzen da?

- a) Mezua hartzaile bakoitzari mezu zifratu gisa heltzen zaiola.
- b) Hartzaileek ez dakitela nori gehiago bidali zaion mezua.
- c) Hartzaileek ezin diotela mezuari erantzun.

11.- Zer da Spama?

- a) Nahi ez diren mezuak.
- b) Baimendutako tamaina gainditzen duten mezuak.
- c) Atxikitako fitxategi arriskutsuak dituzten mezuak.

12.- Zein fitxategi mota da txt bat?

- a) Proiektuak kudeatzeko erabiltzen den dokumentu bat da.
- b) Sistemaren fitxategi babestu bat da.
- c) Testu lauko fitxategi bat da.

13.- Zein da, besterik adierazi ezean, erabiltzaile baten datuak biltegitatzeko erabiltzen den disko-unitatea?

- a) U:
- b) A:
- c) C:

14.- Windows-en zer gertatzen da saioa ixten dugunean?

- a) Zabalik ditugun fitxategi guztiak itxi egiten dira eta ordenagailua itzali egiten da.
- b) Zabalik ditugun fitxategi guztiak itxi egiten dira eta berriz galdetzen dizkigu erabiltzailea eta pasahitza.
- c) Ez da fitxategirik ixten eta ekipamendua blokeatu egiten da pasahitza jartzeko zain.

15.- Windows-en, zein da pantaila-argazkia egiteko tekla?

- a) Ctrl + F12
- b) Imprimir Pantalla
- c) Alt + Pausa

16.- Windows-en, zertarako erabiltzen da Atazen Administratzailea?

- a) Eguneko ordu jakin batzuetarako ekintzak programatzeko.
- b) Egiteke ditudan lanez oroitzeko jakinarazpenak jartzeko.
- c) Sistemaren egoera kontrolatzeko eta exekutatzen ari diren aplikazioak ikusteko.

17.- Windows-en, oro har, pantailaren behealdean barra bat dago, ainguratuta ditugun zuzeneko atzipenak eta zabalik ditugun aplikazioak agertzen dituena. Nola izena du barra horrek?

- a) Ataza barra
- b) Ainguratzailea
- c) Programa barra

18.- Zer da sinadura elektronikoa bat?

- a) Eskuz idatzitako sinaduraren irudi eskaneatu bat da.
- b) Sinatzailea egiaztatze dokumentu bati lotzen zaizkion datu elektronikoen multzo bat da.
- c) Dokumentuetan txertatutako zigilua eratzen duen irudi bektorial bat da.

19.- Adierazi jarraian aipatzen direnen artean zein ez den web-nabigatzaile bat

- a) Mozilla Firefox
- b) Explorer Navigator
- c) Google Chrome

20.- Nabigatzaile bakoitzak izen bat ematen dio nabigazio pribatuari, baina denetan existitzen da: InPrivate, Nabigazio pribatua, Inkognito modua, Inkognito nabigazioa, ... Zertarako balio du modu horrek?

- a) Nabigatzen ari garela ordenagailuan aztarnarik ez uzteko.
- b) Webgune jakin batzuetarako sarbidea pasahitz bidez blokeatzeko.
- c) Nabigatzen ari garela mikrofonoa eta kamera desgaitzeko.

21.- Adierazi jarraian aipatzen direnen artean zein ez den lainoan biltegitzeko zerbitzu bat

- a) Facebook Space
- b) Google Drive
- c) Microsoft OneDrive

22.- Twitter-en, zer gertatzen da birtxiokatzen dugunean?

- a) Txio bat posta elektronikoz partekatzen dugula.
- b) Txio bat WhatsApp bidez partekatzen dugula.
- c) Gure jarraitzaileekin txio bat partekatzen dugula.

23.- Jarraian adierazten direnen artean, zein ez da sare sozial bat?

- a) Instagram
- b) GMail
- c) Google +

24.- Zer da Interneteko domeinu bat?

- a) Webgune bat identifikatzen duen izen bakana.
- b) Webgune batera sartzea ahalbidetzen duen erabiltzaile izena.
- c) Webgune baten iturburu-kodea.

25.- Zer da "enkriptatzea"?

- a) Fitxategiak konprimatuta gordetzea, leku gutxiago bete dezaten.
- b) Fitxategiak babestea, haien edukia lengoaia zifratuan adieraziz.
- c) Fitxategien segurtasun kopiak egitea, tamaina txikiagoan.

26.- Zer erakusten du inprimaketa-ilarak?

- a) Inprimatu diren dokumentuen zerrenda.
- b) Instalatuta dauden inprimagailuen zerrenda.
- c) Inprimatzen edo inprimatzeko zain dagoena.

27.- Word-en, gaztelaniaz "aytb" idazten duzun bakoitzean ordenagailuak automatikoki "Ayuntamiento de Barañain" jartzeko, zein aukera erabili behar da?

- a) Testu automatikoa
- b) Zuzenketa automatikoa
- c) Egokitzapen automatikoa

28.- Zer da Blog bat?

- a) Eguneroko baten moduan, egileen informazio interesgarria duen webgune bat da.
- b) Gaurkotasun-albisteei buruzko informazioa modu automatikoan biltzen duen webgune bat da.
- c) Eskualde batean eskaintzen diren jarduera guztiak dituen gertakizunen zerrenda modu automatikoan erakusten duen webgune bat da.

29.- Interneteko nabigatzaileetan, zer dira hedapenak edo osagarriak?

- a) Leihoen hondoa eta nabigatzailearen ikonoak dekoratzeko estiloak.
- b) Nabigatzaileak berez ez dakartzan zerbitzu jakin batzuk emateko tresna txikiak.
- c) Nabigatzaileen barretarako zuzeneko atzipenak: Gogokoak, Historia, Gordetako pasahitzak, eta abar.

30.- Zein fitxategi mota da png bat?

- a) Konprimatutako fitxategi bat.
- b) Dokumentu zifratu bat.
- c) Irudi bat.

31.- Ez dira aintzatesten administrazio-prozeduran interesatu gisa:

- a) Eskubide edo interes legitimo indibidual edo kolektiboen titular gisa sustatzen dutenak.
- b) Prozedurari hasiera eman gabe, prozeduran hartzen den erabakiaren eragina jasan dezaketen eskubideak dituztenak.
- c) Hartzen den erabakiaren eragina jasan dezaketenak, dagokion prozeduran behin betiko erabakia egokitu arren.

32.- Administrazioari zuzendutako eskaera, idazki edo komunikazio batean hainbat interesdun agertzen direnean, bide ematen dutenek jarduketak egingo dira:

- a) Interesdun guztiekin.
- b) Aurre-aurrean agertzen denarekin.
- c) Errekeritu egin behar zaie, ezinbestean, ordezkari bat izenda dezaten.

33.- Esan zein den adierazpen ZUZENA:

- a) Herri Administrazioak administrazio-prozedurako interesdunen nortasuna egiaztatzen behartuta daude, horretarako Nortasun Agiri Nazionalan edo baliokidea den identifikazio-dokumentuan, haien izen-abizenak edo sozietate-izena egiaztatuz, dagokionaren arabera.
- b) Interesdunek ezin izango dute haien burua elektronikoki identifikatu Herri Administrazioen aurrean, Ahalordeen Erregistro Elektronikoko Orokorrean ez badaude.
- c) Interesdunen nortasuna egiaztatzeko, interesdunak herri administrazio bakoitzean berariaz helburu horrekin izendatutako zerbitzuaren aurrean agertuko beharko dira aurrez aurre.

34.- Esan zein adierazpen den OKERRA:

- a) Pertsona juridikoek uneoro aukera dezakete haien eskubideak eta betebeharrak baliatzeko Herri Administrazioekin baliabide elektronikoen bidez komunikatzen diren ala ez.
- b) Pertsona juridikoek uneoro aukera dezakete haien eskubideak eta betebeharrak baliatzeko Herri Administrazioekin baliabide elektronikoen bidez komunikatzen diren ala ez, Herri Administrazioekin harremanak baliabide elektronikoen bidez edukitzera behartuta ez badaude.
- c) Herri Administrazioek bermatu egin behar dute interesdunek Administrazioarekiko harremanak baliabide elektronikoen bitartez edukitzeko aukera dutela; helburu horrekin, beharrezkoak diren bideak zein kasu bakoitzean zehazten diren sistema eta aplikazioak jarriko dituzte haien eskura.

35.- Esan zein adierazpen den ZUZENA:

- a) Pertsonak Administrazioari kasu bakoitzean aplikatzekoa den Legean aurreikusi bezala lagunduko diote.
- b) Prozedura baten interesdunek prozeduran agertu ez diren beste interesdunak identifikatzea ahalbidetzen duten datuak dituztenean, datu horiek Administrazio jarduleari emateko betebeharra dute.
- c) Biak dira zuzenak.

36.- Nor dira aferen tramitazioaren zuzeneko arduradunak?

- a) Administrazio-unitateetako titularrak.
- b) Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileak.
- c) Biak.

37.- Administrazioak ebatzi behar du:

- a) Prozedura guztietan, nola hasi diren kontuan hartu gabe.
- b) Interesatuak hala eskatuta hasitako prozeduretan baino ez.
- c) Aurreko bi erantzunak dira zuzenak.

38.- Prozedura bat ebazteko eta erabakia jakinarazteko legezko gehieneko epea igarotzea bertan behera utzi ahal izango da:

- a) Edozein interesduni hutsuneak zuzentzeko edo beharrezkoak diren dokumentuak eta erabakitzeko bestelako elementuak errekeritu behar zaizkionean.
- b) Administrazioak erabakitzen duenean, administrazio unitateak ebatzi behar dituen espedienteak pilatu direlako.
- c) Administrazioak hala erabakita, inolako erabaki arrazoitu zehazteko beharrik gabe.

39.- Esan zein adierazpen den OKERRA

- a) Legeak edo Europar Batasuneko Zuzenbideak bestelako zenbaketa bat adierazten ez dutenean, epeak egunetan adierazten direnean, egunak baliiodunak direla ulertuko da, zenbaketan larunbatak, igandeak eta jaieguntzat jo direnak sartu gabe.
- b) Egunetan adierazitako epeak jakinarazpena edo dagokion egintza argitaratzen den egun berean hasiko dira zenbatzen, edo administrazioaren isiltasunarengatik baiespena edo gaitzespena gertatzen den egun berean.
- c) Epearen azken eguna baliogabea denean, hurrengo egun baliiodunera luzatzen dela ulertuko da.

40.- Markatu erantzun zuzena

- a) Isiltasun administratiboa dela-eta eragindako egintza administratiboak Administrazio Publikoaren aurrean baino ezin ahalko dira gauzatu.
- b) Isiltasun administratiboa dela-eta eragindako egintza administratiboak bai Administrazio Publikoaren aurrean bai edozein pertsona fisiko edo juridikoren aurrean, dela publikoa dela pribatua, gauzatu ahalko dira.
- c) Aurreko erantzunetatik, bat ere ez da zuzena.

41.- Astelehenean, hilak 1, Herri Administrazioaren jakinarazpen bat jasotzen baduzu, zeinetan errekeritzen zaizun dokumentu batzuk aurkeztea 5 egun baliioduneko epean, dokumentuak aurkezteko eguna zein litzateke?

- a) Ostirala, hilaren 5a
- b) Larunbata, hilaren 6a
- c) Astelehena, hilaren 8a

42.- Esan zein den adierazpen ZUZENA:

- a) Administrazio bakoitzak amaitutako prozedurei dagozkien dokumentu elektronikoen fitxategi elektronikoa bakarria izan beharko du.
- b) Autonomia Erkidego bakoitzeko Administrazio bakoitzak toki erakundeek amaitutako prozedurei dagozkien dokumentu elektronikoen fitxategi elektronikoa bakarria izango du.
- c) Biak dira zuzenak.

43.- Esan zein den adierazpen ZUZENA

- a) Nafarroako toki erakundeetako kide anitzeko organoek ohiko saioekin, alde zuzenetik ezarritako maiztasuna dutenekin, eta presazkoak ere izan daitezkeen ezohiko saioekin funtzionatzen dute.
- b) Nafarroako toki erakundeetako kide anitzeko organoek ohiko saioekin eta presazkoekin funtzionatzen dute.
- c) Nafarroako toki erakundeetako kide anitzeko organoek aldi behingo saioekin funtzionatzen dute, Foru Erkidegoko Administrazioak urtero ezartzen duen egutegia betez.

44.- Esan zein adierazpen den OKERRA

- a) Udaleko Osoko Bilkurarako deialdiek saioa zein egun, ordu eta lekutan egingo den adierazi behar dute.
- b) Udaleko Osoko Bilkurarako deialdiek saiorako gai-zerrenda adierazi behar dute.
- c) Udaleko Osoko Bilkurarako deialdiek saiorako gai-zerrendan dauden gaien dokumentazio osoa izan behar dute atxikita.

45.- Toki-korporazioetako kideak saioetara joatea:

- a) Derrigorrezkoa da, arrazoa justifikatua denean izan ezik, eta horren berri eman beharko diote Presidenteari.
- b) Hautazkoa da, eta bertaratu ezean, bertaratu ez denaren botoa abstentzio gisa zenbatuko da.
- c) Korporazioko kideak deitzen diren saioetara ez joateari ezin zaio inoiz zehapen ekonomikorik ezarri.

46.- Udalbatzako kide batek, Udalaren Osoko Bilkuran ahoz egiten dituen galderak:

- a) Hurrengo saioan erantzungo dira, galdera jaso duenak berehala erantzuten ez badu.
- b) Saio berean erantzun behar dira derrigorrez.
- c) Udalbatzako kide batek, Udalaren Osoko Bilkura batean ez du ahoz galderarik egiteko aukera.

47.- Esan zein adierazpen den OKERRA

- a) Biztanle guztiek dute toki korporazioek onartzen dituzten ebazpen eta akordioen kopiak eta ziurtapen-frogagiriak eskuratzeko eskubidea, eta baita aurrekariak ere.
- b) Biztanleek korporazioaren erregistroko dokumentazioa, fitxategiak eta erregistroak kontsultatzeko eskubidea dute, dokumentazioa publikoa bada.
- c) Biztanleek udalaren informaziora heltzeko eskubidea, eragindako udal zerbitzuen adostasunaren mende egongo da beti.

48.- Udalaren Osoko Bilkuratan, akordioak, oro har onartuko dira:

- a) Bertaratutako kideen gehiengo soilaz.
- b) Bertaratutako kideen gehiengo kalifikatuz.
- c) Tokiko Gobernu Batzarreko kideen gehiengoaz.

49.- Nafarroako toki erakundeen egintza eta akordioen prozedurek eta araubide juridikoak bete behar dute:

- a) 6/1990 Foru Legean, uztailearen 2koan, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoan ezarritakoa.
- b) Gaia arautzen duen eta indarrean dagoen legeria orokorrean ezarritakoa.
- c) Aurreko bietan ezarritakoa.

50.- Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurreko gorako errekurtsioa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren kontrolari lotuta dauden Nafarroako toki erakundeen egintza eta akordioen aurrean:

- a) Nahitaezkoa da beti.
- b) Nahitaezkoa da soilik araudian aurreikusitako kasuetan.
- c) Hautazkoa da beti.

51.- Toki administrazioek zerga oinarriak eta zorrak zehazteko egiten dituzten egintzak/egintzek:

- a) Legezketasun-presuntzioa dute.
- b) Nafarroako Gobernuko Ogasun Sailak berretsi behar ditu.
- c) Ezin dira ofizioz berrikusi, baliogabetu edo deuseztatu, eta ezin zaizkie errekurtsioak aurkeztu.

52.- Lau urtetara preskribatuko dira Nafarroako toki erakundeen eskubide eta ekintza hauek:

- a) Tributu-zorra dagokion likidazioaren bidez zehazteko eskubidea, epea sortzapena egiten den datatik zenbatzen hasten dela.
- b) Zergazko arau-hausteengatik zehapenak ezartzeko ekintza, dagozkion arau-hausteak egin diren datatik zenbatzen hasita.
- c) Aurreko bi adierazpenak zuzenak dira.

53.- Martxoaren 10eko 2/1995 Legearen, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoaren, 16. artikuluan ezartzen dena betez, toki erakundeen aldeko mailegu eta zorrak iraungitzen dira:

- a) Preskripzio bidez.
- b) Barkamen bidez.
- c) Aurreko bi adierazpenak ez dira zuzenak.

54.- 39/2015 Legearen 13. artikulua eskubide hau aitortzen die administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna duten pertsonari:

- a) Administrazio publikoekin komunikatzea Administrazioaren irispide-puntu elektronikoro orokor baten bitartez.
- b) Lege honetan identifikaziorako eta sinadura elektronikorako aurreikusitako bitartekoak lortzea eta erabiltzea.
- c) Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.

55.- 15/1999 LO, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa aplikatzen zaie:

- a) Izaera pertsonaleko datu guztiei.
- b) Euskarri fisikoan erregistratuta dauden eta trata daitezkeen izaera pertsonaleko datu pertsonalei.
- c) Sektore publikoak eta pribatuak datu horiek gero erabiltzeko dituen modalitate guztiei.

56.- (Adierazi zein den definizio OKERRA) Abenduaren 13ko 15/1999 LOri dagokionez, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoari dagokionez, zera ulertzen da hauekin:

- a) Izaera pertsonaleko datuak: identifikatu diren edo identifikatu daitezkeen pertsona fisikoei dagozkienak.
- b) Fitxategia: izaera pertsonaleko datuen multzo antolatu oro, edozein modu edo modalitatean sortu, biltegiratu, antolatu direnak, eta haietarako sarbidea edozein modu edo modalitatetan dutela.
- c) Datuen tratamendua: fitxategietan dauden datuak kopiatzeko, aldatzeko eta/edo ezabatzeko egiten den edozein eragiketa.

57.- Esan zein den adierazpen ZUZENA

- a) Izaera pertsonaleko datuak deuseztatu egin behar dira, jaso edo erregistratu zireneko helbururako beharrezkoak edo egokiak izateari uzten diotenean.
- b) Izaera pertsonaleko datuak gordetzean, datuak jaso edo erregistratu zireneko helbururako beharrezkoak direna baino epe luzeagoan gorde behar dira, interesduna identifikatzeko moduan.
- c) Arau orokor gisa, beharrezkoa izango da kaltetuen baimena balio historikoa, estatistikoa edo zientifikoa duten datuak osorik mantentzeko.

58.- Esan zein adierazpen den OKERRA

- a) Herri Administrazioek haien atribuzioetarako bildu edo lantzen dituzten izaera pertsonaleko datuak ez zaizkie beste Herri Administrazioei helaraziko bestelako eskumenak baliatzeko, edo gai desberdinei buruzko eskumenetarako, datu-emate horren helburua datuak helburu historiko, estatistiko edo zientifikoekin geroago tratatzea denean izan ezik.
- b) Herri Administrazioek haien atribuzioetan jarduteko bildu edo landu dituzten izaera pertsonaleko datuak ez zaizkie inoiz helaraziko beste Herri Administrazioei.
- c) Herri Administrazio batek lortu edo lantzen dituen izaera pertsonaleko datuak beste bati helarazi ahal izango zaizkio beti.

59.- Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurreko gorako errekurtoa jartzeko epea izango da:

- a) Hilabete batekoa egintza espresua bada eta sei hilabetekoa presuntziosko egintza bada.
- b) Hilabete batekoa bai egintza espresuentzat bai presuntziosko egintzentzat.
- c) Bi hilabetekoa bai egintza espresuentzat bai presuntziosko egintzentzat.

60.- Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurreko gorako errekurtoa jartzeko legitimatuta egongo dira

- a) Legeria orokorraren arabera, toki erakundeen egintza eta akordioak inpugnatzeko legitimatuta daudenak.
- b) Bertako biztanleak, egintza edo akordioak pertsonalki eragiten ez badie ere.
- c) Aurreko biak.